


Espainia eta Frantzia arteko interkonexio elektrikoa

Bizkaiko Golkotik barrena



Proiektuaren boletina

2018ko martxoa



Europar Batasunak kofinantzatuta
«Europa Konektatu» mekanismoa

Argitalpen honen egilea izango da erantzule bakarra. Europar Batasuna ez da erantzule izango argitalpen honetan agertzen diren informazioei ematen zaizen ezein erabilerari dagokiolarik.


Kontsulta publikoaren bilakaera



Interesatutako publikoaren esku-hartze eraginkorra izan da, eta herritar guztiek hartu ahal izan dute parte, banaka nahiz taldean, interes komuneko proiektu honetan (IKP) erabakiak hartzeko unean.

Proiektuan interesa duten aldeei informazioa eman eta kontsultak egin zaizkie fase oso goiztarrean, publikoak izan zitezkeen ardurak kontuan har zitezkeen garaian. Eta modu irekian eta gardenean egin da dena. Publikoak Parte Hartzeko Kontzeptu Planean definitu ziren garatutako jardueri esker, herritarren eskubideak gauzatu ahal izan dira proiektuko fase honetan parte hartzeari dagokionean.

Parte-hartze publikoko prozesuaren etapak



Kontsulta publikoaren laburpena

Aztertu diren
eremuko
udalerrietan



Proiektuari buruzko dokumentazioa banatu da postontzietan eta informazio-jardunaldien datak jakinarazi dira.



Zazpi jardunaldi presentzial egin dira, proiektua publikoki aurkezteko. Gutxi gorabehera, 300 bat lagunek hartu dute parte.



Asteetan zehar, herritarren arretarako guneak ezarri dira aztertu den eremuko udalerrri bakoitzean: Laukiz, Gatika, Maruri-Jatabe, Mungia, Lemoiz eta Bakio.



Udalerrietako udaletxeetan iradokizunen postontzi bat jarri da bizilagunen eskura, edozein kontsulta edo iradokizun egiteko.



1.300 lagun ingururen kontsultak eta iradokizunak jaso dira gutxi gorabehera, eta Red Eléctricak guztiak aztertu eta erantzun ditu ikuspuntu teknikotik eta ingurumenaren ikuspegitik.



QR kodeak eskaneatu bideoak ikusteko.



Bilboko Ingeniaritza Eskolako (EHU/UPV) jardunaldia.



Ingurumenari buruzko jardunaldia.



Udalerrietako informazio-jardunaldiei buruzko adibidea (irudikoa Mungia da).




Administrazioekin eta enprekin izandako jardunaldia Bilboko La Alhóndigan.

Interes eta ezinegon handiena piztu duten gaiak



- Proiektuaren **beharra** eta justifikazioa.
- Etorkizuneko estazio bihurtzailearen **kokapena**.
- Gatikako azpiestazioaren eta etorkizuneko estazio bihurtzailearen **zarata**.
- **Eremu elektromagnetikoak**.
- Instalazioak ingurunean izango duen **inpaktu bisuala**.
- Udalerriei eta partikularrei emango zaizkien **kalte-ordainak**.

Sektore-mailan



- Arrantzaleen kofradiekin eta elkarteekin egindako jardunaldia: 11 lagun bertaratu ziren.
- Administrazioekin eta sektoreko enprekin egindako jardunaldia: 150 lagun bertaratu ziren.
- Jardunaldi teknikoa: 60 lagun bertaratu ziren.
- Ingurumenari buruzko jardunaldia: 30 lagun bertaratu ziren.
- Bilboko Ingeniaritza-eskolako (UPV/EHU) jardunaldia: 150 lagun bertaratu ziren.

Inpaktuak murrizteari buruzko arreta-gune nagusiak



Behin betiko proiektuak, ahal den neurrian, kontuan izango ditu parte-hartze publikoko prozesuan eta aurreko kontsultetako tramitean bildutako adierazpenak eta iradokizunak.



Zarata: ahal den neurrian, jendea bizi den edo eraikinak oso gertu dauden eremuak saihestuko dira, zarata-igorpenak pertsonak molestatu baititzake, eta osasun-neurriak betetzeko beharrezko prebentzio-neurriak hartuko dira jatorrian.



Paisaia: saihestu egingo dira nekazaritza-balio handiko edo balio ekonomiko handiko uzten guneak eta paisaia-kalitate handiko edo oso handiko eremuak.



Habitatak: erkidegorako intereseko diren habitatak osatzen diren tokiak eta babestutako espezieak edo galtzeko arriskuan dauden espeziea bizi diren tokiak saihestuko dira proiektuan.



Azpiegiturak: ahal den neurrian, lehendik dauden bideak eta azpiegiturak aprobetxatuko dira.



Populazioa: ahal dela, saihestu egingo dira herriguneak eta hiri-garapen bat jasan lezaketen eremuak, baita bakartutako etxebizitzak ere.

Proiektuaren webgunea



Proiektuaren webgunea sortu da, proiektuari buruzko informazioa esku-eskura jartzeko asmoz. Informazio-lerro zuzena dago **www.inelfe.eu** orri zehatzaren eta **golfodebizkaia@inelfe.eu** helbide elektronikoaren artean, partehartzaileen arteko komunikazioak kudeatzeko eta informazioaren elkartrukea ziurtatzeko.


Proiektuaren webguneak dokumentazio hau du:

- Informazio-liburuxka.
- Proiektuaren laburpen ez-teknikoa.
- Proiektuaren programazioa eta parte-hartze publikoaren informazioa.
- Kontsulta publikoetan oharra eta kezak adieraztera bideratutako harreman-tarako datuak.


Edukiak hainbat hizkuntzatan argitaratu dira (euskara, ingelesa, frantsesa eta gaztelania), alde interesdun guztiek informazioa eskura izateko xedez.

27.000

bisita baino **gehiago** jaso dira Inelfe webgunean parte-hartze publikoko prozesuan.



Webgunea: www.inelfe.eu



Proiektuaren dibulgazio-liburuxka.



Proiektuaren laburpen ez-teknikoa.

Informazio gehiago proiektuari eta parte-hartze publikoari buruz:



golfodebizkaia@inelfe.eu
www.inelfe.eu



www.minetur.gob.es/energia/es-ES/Participacion/Paginas/Index.aspx



Espainiaren eta Frantziaren artean interkonexioak eraikitzeko eta abian jartzeko RED ELÉCTRICA DE ESPAÑA eta haren Frantziako homologoa den RÉSEAU DE TRANSPORT D'ÉLECTRICITÉ enpresak erdibana sortutako enpresa mistoa da Inelfe.